

# KANALAK

Gure produktua merkatu-segmentura iristeko kanalak erabiliko ditugu: komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak. Gure proiektua gaur egungo indarkeria matxistaren bukaera bezala salduko dugu bezeroei. Beraien hornikuntza gizarteari fabore bat egingo diola jakinaraziz eta enpresaren hedapen azkarraren segurtasuna helaraziz. Lehenik eta behin, negozioen munduan esperientziarik ez dugunez eta kapital askorik ere ez, ikastolan hitzaldi bat emango genukeen eta gure inguruan ditugun pertsonen gure proiektuari buruz hitz egingo genioke, familiari eta lagunei adibidez. Ondoren, denbora tarte bat pasa ondoren eta gauzak erreztasunez aurrera doaztela ikusi ondoren, guk ditugun ideia berdinak dituzten elkarte batzuekin negoziatu eta beraien bitartez propaganda egingo genuke. Azkenik, eta gure proiektua ezinhobe joango balitz, telebistan iragarkiak ezartzea izango litzateke aukera aproposena.